Baztango
Udala

ALMANDOZ · AMAIUR · ANIZ
ARIZKUN · ARRAIOZ · AZPILKUETA
BERROETA · ELBETE · ELIZONDO
ERRATZU · GARTZAIN · IRURITA
LEKAROZ · ORONOZ · ZIGA

**GESERLOCAL**
K/ Iñigo Arista, 16
31007 IRUÑA – PAMPLONA

2021eko abenduaren 23an Udalak egindako ohiko bilkuran, bertzeak, bertze, honakoa erabaki zen:

**4.- GESERLOCAL SL ENTITATE INSTRUMENTAL GISA BERARIAZ DEKLARATZEA.**

Geserlocal SL NUKFk eta Zangozako, Erriberriko eta Lizarrako udalek sortutako merkataritza-sozietatea da, Nafarroako toki entitateei nahitaezko diru-bilketaren alorrean zerbitzua emateko. Egun, Geserlocalek bere helburu sozialaren barruan dauden bestelako zerbitzu osagarriak ematen dizkie toki entitate horiei.

NUKFk Sozietatearen kapitalaren % 97 du eta gainontzekoa aipatu udalei dagokie.

Orain arte, Geserlocalek beste zerbitzu batzuk eman dizkie Nafarroako toki entitateei kontratazio araudiaren araberako esleitze akordioen bidez.

Kontuan hartuta kontratazioari buruz indarrean dagoen araudia eta botere esleitzaileei eta erakunde instrumentalei buruz dauden aurreikuspenak, bereziki Kontratazio Publikoari buruzko 24/2014 Zuzentaraua eta apirilaren 13ko Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legea, Sozietate honi erakunde instrumentalaren izaera esleitzea posible da, ez soilik haren kapitalean zuzenean parte hartzen duten udaletan, baizik eta NUKFren kide diren toki entitateetan ere, Federazioa sozietatearen titular nagusia delako. Horrenbestez, erakunde instrumentala izateko baldintzak bete egiten dira:

1.- Sozietatearen kapital guztia publikoa da.

2.- NUKFk eta horri atxikitako toki entitateek, federazioaren bitartez, batera egiten dute Sozietatearen gaineko kontrola.

3.- Geserlocalek bere jardueraren funtsezko zati bat bitarteko propio gisa esleitu duten toki entitateentzat egiten du.

Hala jakinarazi du Nafarroako Kontratazio Publikoko Batzordeak 1/2021 txostenean.

*En la sesión ordinaria celebrada por el Ayuntamiento el día 23 de diciembre de 2021, se adoptó, entre otros, el acuerdo siguiente:*

***4.- DECLARACIÓN EXPRESA DE GESERLOCAL SL COMO ENTE INSTRUMENTAL.***

*Geserlocal SL es una sociedad mercantil, creada y constituida por la FNMC y los Ayuntamientos de Sangüesa, Olite y Estella, para prestación del servicio de recaudación ejecutiva a las entidades locales de Navarra. En la actualidad Geserlocal viene desarrollando para estas entidades otros servicios complementarios incluidos en su objeto social.*

*La FNMC posee el 97% del capital y el 3% restante pertenece a tres municipios citados.*

*Durante este tiempo Geserlocal ha venido prestando estos servicios a las entidades locales de Navarra en virtud de acuerdos de adjudicación adoptados conforme a la normativa de contratación.*

*Teniendo en cuenta la normativa vigente de contratación y las previsiones existentes sobre poderes adjudicadores y entes instrumentales, en especial la Directiva 24/2014, sobre Contratación Pública y Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos de Navarra, se considera posible la atribución a esta Sociedad de la Condición de ente instrumental, además de respecto de los ayuntamientos que participan directamente en su capital, de las entidades locales pertenecientes a la FNMC como titular mayoritario de la sociedad. A tal efecto se cumplen las condiciones exigidas para ello:*

*1.- La totalidad de su capital es público.*

*2.- Concurrencia de un control conjunto de la Sociedad por la FNMC y de las entidades locales asociadas a esta entidad, a través de la misma.*

*3.- Geserlocal realiza la parte esencial de su actividad para las entidades locales respecto de las que ostente la atribución de medio.*

Aurrekoa kontuan harturik, NUKFren Batzorde Betearazleak irailaren 14an egindako saioan erabaki zuen Geserlocal Federazioari atxikitako toki entitateen erakunde instrumental bihurtzea hala erabakitzen duten toki entitateetan.

Horrenbestez, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.2.d) artikuluan xedatutakoari jarraiki, Udalbatzak aho-batez honako hau **erabaki du**:

1.- Geserlocal SL Baztango Udalaren erakunde instrumental deklaratzea aipaturiko Foru Legearen 8. artikuluak xedatutakoaren ondorioetarako.

2.- Enkarguen eremua honako hauei dagozkien prestazioak izan daitezkeela adieraztea: PREMIAMENDU BIDEZKO TRIBUTU KUDEAKETARAKO LAGUNTZA ZERBITZUA eta TRAFIKOARI, IBILGAILUEN ZIRKULAZIOARI ETA BIDESEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA HAUSTEAGATIKO ZEHAPEN-PROZEDURAK KUDEATZEKO LAGUNTZA ZERBITZUA.

3.- Honako erabakia NUKFeri eta Geserlocali jakinaraztea eta Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea.

*En este sentido ha informado la Junta de Contratación Pública de Navarra, en su informe 1/2021.*

*Teniendo en cuenta lo anterior, la Comisión Ejecutiva de la FNMC, acordó en su sesión de 14 de septiembre atribuir a Geserlocal la condición de ente instrumental de las entidades locales asociadas a la misma que así lo acuerden.*

*En consecuencia, conforme a lo dispuesto en el artículo 8.2.d) de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos de Navarra, el Pleno por unanimidad* ***acuerda:***

*1.- Declarar a Geserlocal, SL como ente instrumental del Ayuntamiento de Baztan a efectos de lo dispuesto en el artículo 8 de la precitada Ley Foral.*

*2.- Declarar que el ámbito al que se pueden circunscribir los encargos que se realicen sean las prestaciones correspondientes a: SERVICIOS DE ASISTENCIA PARA LA GESTIÓN TRIBUTARIA EN VÍA DE APREMIO y SERVICIO DE ASISTENCIA EN LA GESTIÓN DE LOS PROCEDIMIENTOS SANCIONADO-RES POR INFRACCION A LA NORMATIVA DE TRAFICO, CIRCULACION DE VEHICULOS Y SEGURIDAD VIAL.*

*3.- Notificar el presente acuerdo a la FNMC, Geserlocal y proceder a su publicación en el Portal de Contratación de Navarra.*

Erabaki honen aurka, helegite hauetariko bat aurkez daiteke, hautara:
a).BERRAZTERTZEKO helegitea, egintzaren organo egileari zuzendua, HILABETE BATeko epean, erabaki hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.
b).ADMINISTRAZIOAREKIKO helegitea, behar den Epaitegiari/Salari zuzendua, BI HILABETEKO epean, akordio honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.
c).GORA JOTZEKO helegitea, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aitzinean, HILABETE BATeko epean, akordio hau jakinarazten denetik hasita.

*Contra este acuerdo cabe interponer optativamente uno de los siguientes recursos:*
*a).Recurso de REPOSICION ante el mismo órgano autor del acto en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de notificación de este acuerdo.*
*b).Recurso CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante el Juzgado/Sala, según proceda, de lo Contencioso Administrativo en el plazo de DOS MESES desde el día siguiente al de notificación de este acuerdo.*
*c).Recurso de ALZADA ante el Tribunal Administrativo de Navarra dentro del MES siguiente a la fecha de notificación de este acuerdo.*

Baztanen, 2022ko urtarrilaren 4an.

*Baztan, 4 de enero de 2022.*

JARDUNEKO ALKATEAK O.I.
*V º B º EL ALCALDE EN FUNCIONES*

IDAZKARIA:
*EL SECRETARIO:*